PACO ROCA

# Zimurrak




...ULERTZEN DUT ZU HORRELA TEMATZEA, BAINA, SINESTAZU, EZIN DIZUT INOLA ERE LAGUNDU.
ZURE SOLDATAREKIN, ETA ZURE EMAZTEAK LAN EGITEN EZ DUENEZ, EZIN DIZUET HIPOTEKA-MAILEGUA EMAN.
ZERBAIT IZANGO BAZENUTE BERME GISA JARTZEKO, AGIAN KONPONBIDEREN BAT BILA GENEZAKE...
EZ DUT BAINA MAILEGURIK NAHI!
HAU AMORRAGARRIA DA GERO!
LASAI, GIZONA. HOGEI URTE PASA DARAMAT SUKURTSAL HONETAN ZUZENDARI, ETA...


EZ ZAUDE BANKETXEAN. URTEAK DIRA BANKUAN LAN EGITEN EZ DUZULA.
AFARIA BEHINGOZ HAR DEZAZUN; EZ DUT BESTERIK NAHI.
GAUR ERE BERANDUTU EGIN ZAIGU.
BURUTIK GERO ETA OKERRAGO DAGO.
BAINA, JUAN... ZER KOSTATZEN ZAIZU AITARI BAI-BAI EGITEA?
EZIN DUT GEHIAGO. EROTU EGINGO NAU.
JOAN ZAITEZKETE.


GELA PARTEKATUA MERKEAGOA DA.
ETA PREZIOAN SARTZEN DIRA HIRU OTORDU EGUNEAN...
HARTU BEHARREKO BOTIKEZ ERE ARDURATZEN GARA.
LABUR ESANDA, ETXEAN BAINO HOBETO ZAINDUTA EGONGO DA HEMEN.


BATZUEK HAMABOST URTE BAINO GEHIAGO DARAMATE GUREKIN BIZITZEN, ETA POZIK GAINERA.
ZUEN AITAK BEHAR DUEN GUZTIA IZANGO DU.
ETA, JAKINA, NAHI DUZUENEAN ETOR ZAITEZKETE BISITAN.
ZERA, GUK... EZERTARAKO ASTIRIK EZ DUGU, LANA DELA ETA... BADAKIZU.
EZ DUT USTE SARRI ETORRI AHAL IZANGO DUGUNIK.


A-AMAREKIN JOAN NAHI DUT.


EGUN ON.
EGUN ON.
ZER MODUZ?
ZER MO-DUZ?
NI EMILIO NAIZ.
EMILIO NAIZ.
ONDO, AITA. DAGOENEKO LAGUNA EGIN DUZU.
HEMEN PRIMERAN PASATUKO DUZU, BESTE AITITA BATZUEKIN.


ALDE EGIN BEHARRA DUGU, AITA. SARRITAN ETORRIKO GARA ZU IKUSTERA.
ZURE LAGUN BERRIEKIN UTZIKO ZAITUGU. ZAINDU ZAITEZ!
HARA, BABOA!
BABOA! BABOA!
IRAINGARRIA DA UME BATEN MODUAN TRATATUA IZATEA, EZTA?
MIGUEL NAUZU.
NIRE GELAKIDE BERRIA IZANGO ZARA.
HAU JUAN DA. IRRATI ESATARIA ZEN. HORRENBESTE HITZ EGIN BEHARREZ, HITZAK AGORTU ZITZAIZKION, ANTZA.
ORAIN BESTEONAK ERREPIKATZEN DITU.


ZUZENDARIA ONARPEN-AGIRIAK BETETZEN ARI DA, ETA ZURI EGOITZA ERAKUSTEKO ESKATU DIT.
ESKERRIK ASKO.
A! HAMAR EURO ORDAINDU BEHAR DITUZULA ERE ESAN DIT, EZ DAKIT ZER AGIRIREN GASTUENGATIK...
OSO KONTU ZAILA DA, EZ ZENUKE ULERTUKO.
BANKU SUKURTSAL BATEKO ZUZENDARIA IZAN NAIZ.
A, BAI...?
BARRUKO ZERBAIT DA, HUSKERIA BAT...
HUSKERIA BAT.
EDERTO. EDOZER BEHAR BADUZU, NEURI ESAN BAINO EZ DUZU. NAHI DUZUNA LOR DEZAKET.
ZATOZ, EGOITZA ERAKUTSIKO DIZUT.
EGOITZAK BI SOLAIRU DITU. BEHEKOAN, HEMENGO HONETAN, GAUZA BAGARENOK GAUDE. HAU DA, GUTXI ASKO GEURE KABUZ MOLDA GAITEZKEENOK.


HEMEN GAUDEN IA GUZTIOK BURUA ONDO DUGU. EZ LEHEN BEZAIN ONDO, BAINA GAI GARA PIXKA BAT ARRAZOITZEKO.
ARRAZOITZEKO. ARRAZOITZEKO.
HAU TELEBISTA ARETOA DA.
TELEBISTA GOGOKO IZATEA ESPERO DUT. HEMEN EGIN DAITEKEEN GAUZA BAKARRETAKOA DA ETA.
ANIMALIEN DOKUMENTALAK EZ ZAIZKIT ASKO GUSTATZEN.
BAINA BETI DAGO KANAL HORI JARRITA.
EZTA NIRI, EZTA INORI ERE.


DIOTENEZ, BEHIN, AGURE BATEK KANALA ALDATZEA ERABAKI ZUEN, BAINA LO GERATU ZEN TELEBISTARA HELDU BAINO LEHEN.
JARRAI DEZAGUN IKUSTEN.
EGONGELA ERAKUTSIKO DIZUT.
NON-NON DAGO TELEFONO BAT?
EGUN ON, DOÑA SOL.
SEME-ALABEI DEITU BEHAR DIET, NIRE BILA ETORTZEKO. HEMEN LAGA NINDUTEN, BAINA ORAIN ONDO NAGO.
NON DAGO TELEFONO BAT?
HARRERA-LEKUAN BAT DAGO, HAN GALDETU.
E-ERABILTZEN UTZIKO DIDATE?
BAI HORIXE.
NIRI ORDAINDU ORAIN, ETA DEITU HARRERA-LEKUTIK.


SEME-ALABEK HEMEN LAGA NAUTE, ETA DEITU BEHAR DIET.
UTZIKO DIOTE DEITZEN?
EZ DU INOIZ DEITZEN, KAR-KAR! HARRERA-LEKURA ORDUKO EZ DU GOGORATUKO ZERTARA JOAN DEN. JOAN-ETORRIAN EMATEN DU EGUNA.
FUNTSEAN, EGONGELA TELEBISTA-GELAREN BERDINA DA, BAINA TELEBISTARIK GABE.


EGOITZA HONETAN EZ DAGO INOR ITZARRIK?
BA...
HARA, BAI... ZATOZ.
DOÑA ROSARIO AURKEZTUKO DIZUT.
EGUN ON, DOÑA ROSARIO.
ZUEK ERE ISTANBULERA ZOAZTE?


EZ, DOÑA ROSARIO. GU HEMEN JAITSIKO GARA.
DOÑA ROSARIOK LEIHOTIK BEGIRA EMATEN DU EGUN GUZTIA.
ORIENT EXPRESS-EN DAGOELA USTE DU, ISTANBULERAKO BIDEAN.
EGON APUR BATEAN.
DOÑA ROSARIO, BEGIRATZAILEA NAIZ...
ZATOZ, LIBURUTEGIA ERAKUTSIKO DIZUT.
LOTAN DAUDEN ATSO ETA AGUREZ BETETAKO BESTE GELA BAT?
NORK ERAKUTSI DIZU BA?
NEUK PENTSATU.
HALAXE DA, BAI. EZ DU MEREZI IKUSTERIK.
ETA ESKAILERA HORI NORA DOA?


ESKAILERA HORI?
HARA... ESAN DIZUDAN MODUAN, EGOITZAK BI SOLAIRU DITU. GAUZA BAGARENOK GAUDENEKO HAU ETA ZAINTZAK BEHAR DITUZTENENA.
ZAINDUTAKOAK.
BEREZ MOLDATZEKO GAI EZ DIRENAK ERAMATEN DITUZTE HORRA GORA...
BURUA GALDU DUTENAK. DEMENTZIAREN BAT DUTENAK, ALZHEIMER GAITZA ESATERAKO...
EZ NUKE HOR GOIAN AMAITU NAHI.
HOBE EZ BADIZUT ERAKUSTEN. DEPRIMITU EGITEN NAU.


NON ZINEN?
LUZAROAN EGON NAIZ ZURE ZAIN.
NA-NAHASTU NAIZ ETA EZ NUEN JANGELA TOPATZEN.
BI ORDUZ EGON ZARA GALDUTA?
APUR BAT DESORIENTATUTA NABIL... TXOKO GUZTIETAN DAGO ZAHARREN BAT LOTAN. HOLA EZ DA ERRAZA JAKITEA NON ZAUDEN...
ERRETXIN HAU EMILIO DA.
ATZO ARRATSALDEAN HELDU ZEN.


HAU ANTONIA DA.
ONGI ETORRI EGOITZARA, EMILIO.
DOLORES ETA MODESTO.
URTE ASKOAN.
EMAN DUZUE IZENA URRIKO IRTENALDIRAKO?
KASINORA? TXANGO ZORAGARRIA DA. GU, AGIAN, JOANGO GARA. BAZKARIA PREZIOAN SARTUTA DAGO?
SARTUTA ERE... EZ DU IZANGO EZ AZUKRERIK, EZ GATZIK, EZ KAFERIK...
EMILIO, GURINA JAN BEHAR DUZU?
EZ. HARTU ZEUK.
TIRA, BESTE KOILARAKADA BAT...
ZER DU MODESTOK?
ADIO LUZEA.


ALZHEIMER GAITZA.
GIZAJOAK EZ DAKI JADA NON DAGOEN.
EDOZEIN EGUNETAN GOIKO SOLAIRURA ERAMANGO DUTE.
JESARRI, EDO EZ DIZKIZUET BOTIKAK EMANGO.
EA BA... ANTONIA, MIGUEL, DOLORES ETA EMILIORENTZAKO BOTIKAK.
EMADAZU ZERBAIT HANKETAKO MINERAKO, JOTA NAGO ETA.
NEU ERE MAKAL NABIL BA. ETA MODESTOK BURUTIK BEHERAKOA DU.
OSATZEN EZ BANAIZ, EZINGO DUT ZURE-KIN DANTZATU. KAR-KAR...
EZIN DIZUET BESTE EZER EMAN. MEDIKUAREKIN HITZ EGIN BEHAR DUZUE. TACRINE ETA DONEPAZIL MODESTORENTZAT.


...NEGUA OSO TXARRA DA MARRANTA HARRAPATZEKO.
...
EZ DAKIT ZERTARAKO BEHAR DUGUN HAINBESTE PASTILLA, DIETA ETA DEBEKU...
LUZAROAGO BIZITZEKO, HORRA.
LUZAROAGO TXARTO BIZITZEKO IZANGO DA.
AI, MIGUEL! EZ HASI BERRIRO HORREKIN...
LUZAROAGO BIZI GARA BIZIAZ GEHIAGO GOZATZEKO ETA GURE SEME-ALABAK ETA ILOBAK IKUSTEKO...
TIRA, GOAZEN SOFETARA, AFALORDURA ARTE SIESTA EGITERA.